

Zer ospatu handirik ez



ENEKO OLASAGASTI
EAB-KO ANTOLAKUNTZA
IDAZKARIA

Azken hilabeteetan hainbat agerka-ri digital eta paperezkotan honako lerro-burua irakurri ahal izan dugu: Onartua Artistaren Estatutua. Eta hitzezko ospakizunak zetozen atzetik. Baina ez da egia. Eta ez dakit oso ongi zer pentsatu, zer dagoen gezur horren atzean. Edo ezjakintasunaz idatzi dute edo asmo txarrez. Artistaren Estatutua Espainiako Diputatuen Kongresuko azpi batzorde batek idatzitako aholku txosten bat baizik ez baita. Gobernuari dagokio horko edukiak lege bihurtzea. Eta oraingoz joan den abenduaren 18ko 26/2018 Errege Dekretua besterik ez da onartu. Dekretu horretan Gizarte Segurantzarekin zerikusia duten zati batzuk besterik ez dira arautu. Besteak beste, erretiroa hartu eta gero lan egiteko aukera izatea, beharreko deskontuak eginez baina ez gehiago, eta egile eskubideak kobratu ahal izatea. Baina Artistaren Estatutua askoz gehiago da. Gizarte Segurantzarekin lotura duten beste alor batzuk arautu beharko lituzke, Ogasunarekin artistek duten harremanak arautuko lituzkeen epeen gaineko eredu berri bat sortu eta Askatasun Sindikala bermatu, nagusiki. Eta hortaz oraindik ezer ez da egin.

Gainera, Errege Dekretuak arautzen duena aurretik epaitegietan lortuta zegoen. Hain zuzen ere, Euskal Aktoreen

Batasuneko abokatuak epaitegi askotatik pasa eta gero Auzitegi Gorenean irabazitako auzia da, jubilatutako eta gero lan egiteagatik Gipuzkoako Gizarte Segurantzak aktore batzuei egin zizkien gehiegizko atxikipean zirela kausa. Epaia horrek jurisprudentzia ezarri zuenez Errege Dekretuak ez du ezer berririk ekarri beraz. Kurioso da, beste zerbait ez esateagatik, jokabide hori Gipuzkoako Gizarte Segurantzak besterik ez zuela izan. Ez Bizkaian, ez Araban, ez beste inon ez zuen horrela jokatzeko. Gerora Balear Uhartertan errepikatu nahi izan da. Baina alferrik, jurisprudentzia baitzegoen.

Zertara dator orduan hainbesteko zalaparta eta ospakizuna? Erdiaren erdiaren erdia ere ez denean arautu. Ez dut pentsatu nahi horrekin idazle ospetsu batzuek osatzen duten lobbya kontentutuzteko izan denik. Oso ondo ordaindutako hitzaldiak ematen segi dezaten. Ez dut pentsatu nahi propio egindako zerbait izan denik, denok uste dezagun Estatutua bere osotasunean onartua izan dela eta hortik aurrera kito. Ez, ez dezagun gaizki pentsatu.

Bestetik, eta bukatzeko, hainbat alorretan erkidegotan ez dugu eskumenik baina EAEn baditugu ogasun kontuetan. Zeren zain daude Aldundiak eta Jaurlaritzak lanean hasteko? ●

Eskatologiaren argitan



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Amari zor diot pasarteak. Gaztelaniaz. Gasteiz erdialdeko familia batean gertatua omen zen; zehazkiago, ama baten eta alaba baten artean. Kontua da, halako batean, ama hura etxeko komun batean sartu zela eta bertako tapa altxatzean kaka arrasto nabarmena aurkitu zuela. Hogeitaka urteko alaba sartua omen zen komunean minutu batzuk lehenago eta, beraz, harena omen zen obra. Nolatan ez zuen garbitu galdetu zion amak alabari, eta gazteak erantzun omen zuen ea zertarako kontratatua zuten garbitzaile bat etxean. Zaplateko ederra eman omen zion amak

orduan, bai eta hauxe esan ere: “Sekula ez du inork hire kaka garbitzeko adina dirurik irabaziko”.

Tonu hezigarrian kontatzen du amak pasarte eskatologikoa. Eta, literaturarekin gertatzen den bezala, ez du aparteko muntarik kontatutakoa egiazki egia den ala ez: hagitz ongi funtzionatzen du istorioak.

Hamarkada pasatxo daramat lanean EHUn. Pentsatzekoa denez, maiz aski eraman izan nau fisiologiak komunera lanorduetan. Etxeko pedagogia ez da, nonbait ere, unibertsitate publiko honetara lerratu. ●